

**ZERGATIK NAIZEN ABERTZALEA**

Atzo bertan, ama zahartua nagusitua oheratua zegoela, laguntzen gaituen emakume mongoliarrarekin eduki nuen elkarriketa laburra sukaldean. Eta galdetu nuen ea Mongolian zer nolako ohiturak zeuden gurasoak nagusitzerakoan. Eta harek erran zidan familian hiltzen zirela, eta ohitura zahar horiek galtzen hasita zeudela, baina bera, nirekin konforme, ohitura zahar horien aldekoa zela. Beraren gurasoak, aita eta ama, nola hil ziren kontatu zidan, eta baita anaia gazte bat ere nola hil zitzairen, oso ona omen zena.

Eta dialogo labur horren harira pentsamendu asko etorri zitzaizkidan burura. Orain egokitu egiten zait pixka bat ordenatzea.

Erromako inperioaren hastapenak ziren, eta Catilinaren kontra idatzitako testu batean ageri da Ciceronen erran hau: “oh tempora, oh mores”. Gutxi gorabehera euskaratua izango litzateke “oh garaiak, oh ohiturak”, edo kostunbreak. Eta ohitura latino onen perbersioaz ziharduen, erromatar peto-petoa baitzen Ciceron. Gaur egungo antropologo batek nola interpretatuko luke hori?. Niri, ez dakit erabat zuzen ibiliko naizen, niri oso erraza egiten zait interpretazioa gaur egungo antropologiatik. Latinoak tribu indoeuopar bat ziren, eta agian roman izena brahman izenarekin etimologia batekoak ziren, eta edukiko zuten euren kulturaz halako harrotasun bat, eta indigena ibiltariak izango ziren Italian finkatu arte, eta kultura bat garatuko zuten. Hori begien bistakoa da. Hor harremanetako

ohiturak edukiko zituzten, eta nobleak, onak, izango ziren gehienak, (beti baitago zer hobetua diot gehienak izango zirela, ez guztiak, onak). Eta grekoak Grezian bezala kontaktuan jarri ziren kultura orientalarekin, eta kultura horren inperiozaletasunarekin, erro-errotik zuen klasismoarekin. Eta adi-adi jarriko ziren eta ikusi nola amaitzen ziren menderatuak (ay de los vencidos!), eta grekoak bezala armatu egingo ziren, ez bakarrik ehizarako, baita gerrarako ere. Julio Cesarrek, behin Alejandro Magnoren estatua batekin egin omen zuen topo eta negarrari ekin omen zion, eta erran omen zuen bere edadearekin Alejandrok Asia eta mundu erdia konkistatua zuela gerra eginaz eta berak ez zuela ezer egina oraindik, halakoa omen zen haren afan militarra. Eta niretzat historian izan diren militarretan hoberena izan da. Latinoa izan arren errepublikaren amaiera ekarri zuen inauguratuz horren ordeztu Cesarren aro inperiala, horregatik ere hilko zuten labanaz, famaz eta gloriarez, bere arrakasta militarrek, triunfoak, ospatzen zituen bitartean Erroman bertan.

Baina ez nadila apartatu nire pentsamendu nagusitik artikulua hau idazterakoan. Mores, morada, moral, etimologia berekoak dira, eta etika, ethos, etxea ere da, hitz horretatik omen datoz. Eta horrela gauzak, badago elizako kantu bat oso polita dena eta honela dioena:

Hacia ti morada santa,  
 hacia ti tierra del salvador.  
 Peregrinos, caminantes,  
 vamos hacia ti.

Beraz, ohituren estudioa, harremanetako ohiturena ere, etikaren asuntua da. Eta inperioaren garaian erran zuen Ciceronek, nire aburuz, ohiturak perbertitzen zeudela. Herri israeldarra ere inperioen artean bizi zen, baina Moisesen legeak bazioen nola aita eta ama honratu behar ziren, eta beste pasarte

batean ere bada erraten ezen ama zaintzen zuenak, txotxeatzen bazuen ere, tesoroak akumulatzen zituela zeruan. Israel-darrek, jakina den moduan, sarritan ez zuten euren legea bete, eta ezagutu zuten euren haragian zer den menderatua izatea. Beraz ohitura noble asko inperioetan galdu egiten dira. Ikusi besterik ez dago zer gertatu den Ameriketako indigenekin. Gaur egun, eta nagusietan zentratzen naiz, zahar asko eta asko zoratu egiten da, normala, nire iritziz, ez den porzentaian (lehenagoko garaietan, orain gutxi, ez zen erraten aitzitza edo amama, erraten zen aita jauna eta ama andrea, eta bizkaieraz zaharra baino nagusia erraten da, eta latinoetan ere senectute eta senado etimologia bera dute, nagusien biltzarra edo kontseilua). Eta hori ere bada gogora ekartzen duena, nire gogora bai behintzat, Ciceronen erran hura. Oh tempora, oh mores. Eta gaur egun ere, globalizazio famatuaren aroaren hasieran gaudela, bada erraten nola milenioetan izan diren ohiturak mende batean edo bitan desagertzen daudela, aldatzen eta txarrera.

Berba larregirik ez dut erranen. Zer proposatzen dut nik egoera honen aurrean?. Inperiozaletasunari oposatzen zaio, gaur egun, internazionalismoa. Inperiozaletasunak, hala ere, badu bere alde kultura bat, lanaren kultura, eta hor, moralaren ahultzearekin batera, badira progresorik handienak, baka-rrak ia, gertatu zientzia guztietan. Egun da garaia honelako problemak planteatzeko. Oh tempora, oh mores, diot nik, eta planteatzen dut honela problema, ala inperiozaletasuna ala internazionalismoa, baina hori muturrekoegia izan daiteke askorentzat, eta niretzat ere pixka bat estremista da, eta agian badago beste aukera bat, erdiko neurriaren alde egotea, batetik eta bestetik hartuz hoberena, onena eta ederrena. Nik ez dakit nola joango den historia, etorkizun dena indeterminatua da, baina niretzat, abertzalea naizen arren (abertzalea eta autode-terminazioaren aldekoa izaten jarraituz, eta ondo xamar es-

plikatu dut zergatik), erdiko neurrian egon daiteke bilatzen dugun bertutea, filosofoak zioen moduan.

Eta nazioen artean Vasconia ezagutua denean nik ez dut ikusten batere problemarik euskararekin. Erabaki daiteke, adibidez, edukazio basikoan elebitasuna aukeratzea, bata izango litzateke nazioaren hizkuntza (gure kasuan euskara) eta bestea nazioartean erabakitako lingua franca obligatorioa. Eta kitto, bada posible ere nazioz aldatzea, eta orduan beste hizkuntza bat ikasi beharko litzateke, nazio berriarena. Eta izaten da ezen batzuetan atzerritar batek hobeto ikustea eta ikastea nazio baten problematika eta harek egin izatea ekarpenik handienak ere.

Eta historia ez badoa euskaltzale amorratuen gustora, bada gu, kristau garenok, ez dugu egingo Ameriketako Estatu batuetako indioena, suizidatzen omen direnak asko, filologia-rako utziko dugu hizkuntzena, karrera oso polita dena, eta geratuko dira euskaltzaleak, euren biltzar eta bileretan bururaino ere sartuak, ahaztu gabe atsedena ere inportantea dela osasunerako.

Karmel aldizkaria ere, bide hortatik badoa historia, euskaltzale katolikoek bilgune izan daiteke denborarekin, euskara hutsez dihardukeena, eta Markina-Xemeingo karmelitek zuzendua. Eta nahikoa da.

*Roman Garmendia*